

SAN NIKOLAS  
FESTAK

5

8

SAN NIKOLAS  
FESTAK

SAN NIKOLAS FESTAK 2025 - ABENDUA



SAN NIKOLAS  
FESTAK



## Pantailatik plazara

Argazki zahar bat nahikoa da gure arbasoen bizimodu gogorraz ohartzeko: indar lanez zaildutako gorputzak, sarea josten kiribildutako bizkarrak, ume txikiak guraso-lanetan, eta lapurtutako gaztaroak. Urtaroek eta eguraldiak agintzen zuten orduan; norbanakoaren beharrak askotan isilik geratzen ziren, eta egunerokotasunaren gordintasunak ez zien atsedunik uzten. Hala ere, gogortasun hari aurre egiteko komunitatea beharrezkoa zela garbi zuten, eta ondorioz, herria saretuta zegoen. Onerako eta txarrerako. Minerako eta festarako. Dena partekatzen zen.

Eguneroko gogorraren ezinbesteko ukendua ziren festak. Dena ezin zen garai hartan, bizitza apur bat gozatzeko, elkartzeko eta poza partekatzeko momentua ziren. Festa ez zen bakarrik dantza, kantua edo jana; festa komunitatearen arnasa zen. Bizitzaren aldrebeskeriei aurre egiteko energia.

Gaur, berriz, bestelako mundu batean bizi gara. Edozein unetan gozatzeko aukera dugu: jaki goxoak noiznahi, kontzertuak

edozein asteburutan. Sare sozialetan irribarre perfektuak erakusten ditugu. Badirudi gure bizitzak festa etengabe bat direla, distiraz eta kolorez beteak. Baina barrura begiratzen badugu, bestelako egia bat ageri da: antsietatearen gurpil zoroa, estresak itotako egunerokoak, gauza materialez bete ezin ditugun hutsuneak, bakardade isilduak eta beti zoriontsu agertu beharraren presioa. Gure bizitzak ez dira pantailetan erakusten ditugun irudi perfektuak.

Horregatik, inoiz baino gehiago behar ditugu komunitatearekin partekatzeko momentuak. Jaiak ospatzeko eta eguneroko zailtasunei elkarren laguntzaz aurre egiteko. Hementxe ditugu San Nikolas jaiak ate-joka. Herriko festa handiak. Bete dezagun plaza irriz eta doinuz! Elkar begiratuz, elkar zainduz, presarik gabe, aske.

Gora sanikolasak!



\* Kalejiraren  
ibilbidea:



- Kultur etxea
- Eusko Gudari
- Arrantzale
- Baxoalde
- Palota
- Balea
- Arrantzale
- Abeslari
- Eusko Gudari
- Herriko Plaza

## TXUPINAZO EGUNA

10:30

### JUBILATUEN HAMAIKETAKOA

📍 Zaharren Babeslekua

18:30

### ERRALDOIEN eta BURUHANDIEN KALEJIRA TXISTULARIEKIN\*

📍 Kalez kale

19:00

### ELEKTROTXARANGA ONDOEZIK

📍 Ibilbidea: Herriko Plaza, Endaia plaza, Aritzaga kalea eta Herriko Plaza

20:00

### TXUPINAZOA JARRAIAN, TXOSNEN IREKIERA

📍 Herriko Plaza

20:15

### ELEKTROTXARANGA ONDOEZIK

📍 Ibilbidea: Herriko Plazatik Ibai Ondora

20:15

### KONTZERTUA LAPRAST ERROMERIA

📍 Herriko Plaza

23:00

### GAUEKO EMANALDIAK LAPRAST ERROMERIA eta DJ XANTA

📍 Herriko Plaza



# SAN NIKOLAS EGUNA

09:00

## 3X3 SASKIBALOI FESTA

LH3-DBH4-ko gaztetxoentzat

📍 Karela kiroldegia

11:00

## TAILERRAK

Haur eta gaztetxoentzat

📍 Ikastolako pergola

11:00

## MEZA NAGUSIA SALATXO ABESBATZAREKIN

📍 Eliza

12:30

## DANTZARI SUELTO TXAPELKETA

📍 Herriko Plaza

17:00

## ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA TRIKITILARIEKIN\*

📍 Kalez kale

18:00

## BANDAREN KONTZERTUA

📍 Herriko Plaza

19:00

## PATATA-TORTILLA LEHIAKETA

LH6-DBH4ko ikasleentzat

📍 Ikastolako pergola

20:00

## ELEKTROTXARANGA PUNTU KAKOTX

📍 Herriko Plaza

22:00

## BERTSO SAIOA ANDONI EGAÑA, MAIALEN LUJANBIO, AITOR BIZKARRA, XABAT ILLARREGI, NEREA ELUSTONDO

📍 Karela Kiroldegia

23:00

## GAUEKO EMANALDIAK GANIBET, AIMARZZ, DJ MAKEDA, DJ DENZ

📍 Herriko Plaza

\* Kalejiraren  
ibilbidea:



- Kultur etxea
- Eusko Gudari
- Pelotari
- Iturbide
- Kale Nagusia
- Herriko Plaza

# SAN NIKOLAS BIGARRENA

11:00

## UMEEN IKUSKIZUNA GORA BIHOTZAK

📍 Herriko plaza

12:30

## POTEO MUSIKATUA KANTU SALDA

📍 Kalez kale

14:30

## HERRI-BAZKARIA

📍 Karela kiroldegia

18:00

## ORIOKO TXARANGA

📍 Karela kiroldegia

18:30

## ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA TXARANGAREKIN\*

📍 Kalez kale

22:00

## GAUEKO EMANALDIAK: ZINEZ, MARTE LASARTE, BAD SOUND SYSTEM, DJ TROTI, DJ LA FULANA

📍 Herriko Plaza

# 8

SAN NIKOLAS FESTAK 2025

# SAN NIKOLAS HIRUGARRENA

06:00

## GAUPASEROEN ARGAZKIA

📍 Oa-ko eskailerak

11:00

## HAURRENTZAKO EUSKAL HERRIKO JOSTAILUEN LANTEGI eta JOKOAK

Jarraian, bertan bazkaltzeko aukera  
izango da, Gure Sukaldetik-en eskutik

📍 Herriko Plaza

12:00

## KANTUJIRA EUSKAL HERRIKO KANTUAK

📍 Kalez kale

13:00

## ORIO ARRAUNKETA ELKARTEAREN BANDEREN BEDEINKAPENA eta BAZKARIA



ABENDUAK 7 IGANDEA

\* Kalejiraren  
ibilbidea:



- Kiroldegia
- Balea
- Arrantzale
- Abeslari
- Eusko Gudari
- Herriko Plaza
- Ibai Ondo
- Aita Lertxundi
- Aritzaga
- Herriko Plaza



ABENDUAK 8 ASTELEHENA



\* Kalejiraren  
ibilbidea:



- Kultur etxea
- Eusko Gudari
- Arrantzale
- Baxoalde
- Palota
- Balea
- Arrantzale
- Abeslari
- Eusko Gudari
- Herriko Plaza

16:00

## **HERRI KIROL PARTE-HARTZAILEAK**

Haur eta gaztetxoentzat

📍 Herriko Plaza

17:00

## **HERRI KIROLAK JOSEBA OSTOLAZA HARRI ESKOLAREN ESKUTIK**

📍 Herriko Plaza

17:00

## **ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA TRIKITILARIEKIN\***

📍 Kalez kale

18:30

## **TALO JANA**

📍 Herriko Plaza

19:30

## **KONTZERTUA MUXUTRUK ERROMERIA**

📍 Herriko Plaza

### **ANTOLATZAILEAK**

Festen antolaketa parte hartu duten eragileak Orioko Udalarekin elkarlanean: San Nikolas jai-batzordea, Zaragueta Herri Eskola, Orioko Herri Ikastola, Orioko Erraldoiak, Danbolin Musika eta Dantza Eskola, ZAST, Errikotxia Bertso Eskola, Pakak, Txozna batzordea, Orio Arraunketa Elkartea, Gazteon Ahotza, Orioko Txaranga, Salatxo Abesbatza, Orioko Parrokia, AEK, Harribil Dantza Taldea eta Zaharren Babeslekua.



### **BARRAKEN PREZIOAK ETA HAURREN EGUNA**

Orioko Udalaren eta AFADE ferialarien elkartearen lankidetzat hitzarmenean prezio hauek adostu dira barraketarako: Sarrera bat 2,5 euro; sei sarrerako bonua 10 euro. Azaroaren 29a Haurren Eguna izango da, prezio bereziarekin: 1,5 euro sarrera bakoitza.



### **ZARATARIK GABEKO UNEAK**

Egunero zaratarik gabeko bi ordu izango dira barraketan, bereziki, heziketa-premia zehatzak dituzten haurren inklusioa errazteko: 11:30etik 12:30era eta 17:00etatik 18:00etara.



### **OGITARTEKOAK TXOSNETAN**

Txosnetan ogitartekoak eskatzeko aukera izango da 20:30etik aurrera.

# ERASO MATXISTARIK EZ!

Orioko Udalak ez du onartzen inolako eraso sexista, homofobo, transfobo eta arrazistarik. Abenduaren 5, 6 eta 7an Puntu Morea jarriko da turismo-bulegoaren parean, 20:00etatik 00:00etara, herritarrei informazioa emateko.



**BIZITZA  
ASKEAK  
PLAZER**